

**ERDIKO OTITIS AKUTUA  
OTITIS MEDIA AGUDA**

Zure seme-alabak orain dauzkan sintomak eta zeinuak direla-eta, hauxe da diagnostikoa: **ERDIKO OTITIS AKUTUA**.

**ZER DA?**

Erdiko belarriko infekzio akutua da, umeen artean oso ohikoa, adin horretan belarriak dauzkan ezaugarri anatomikoengatik. Oso arrunta da goiko arnasbideetako katarro baten konplikazioa izatea.

**NOLA IGARRI AHAL DIOT?**

Normalean, umeak egun batzuk daramatza katarroarekin eta sukarra ere igo egin daiteke. Bularreko haur txikiak haserrekorrako jartzen dira edo biziki egiten dute negar, batez ere gauez; ez dute jan nahi izaten, xurgatu behar badute, batez ere; eta, batzuetan gorakoak eta beherakoa eduki ditzakete. Ume nagusiagoak belarriko minaz kezutzen dira eta, batzuetan, ez dutela ondo entzuten adierazten dute. Belarri-hodian jarria ikusten denean, tinpanoak haustura txiki bat eduki duela esan nahi du, eta hortik zornea dariola; kasu hauetan, arindu egiten da mina.

**ZER EGIN DEZAKET UMEAK OTITISA BADAUKA?**

- Otitis gehienak tratamendu antibiotikorik gabe sendatzen dira 24-48 orduetan; baina, baliteke kasu batzuetan pediatrik antibiotikoa ahotik hartzeko agintzea, egun batzuetan.
- Mina ohiko antitermikoak hartuz arinduko da: paracetamola, ibuprofenoa...
- Garrantzitsua da sudur-hobiak serumez ondo garbitzea; txikienekin "mukiak ateratzeko tresna" erabil daiteke.
- Guk geuk nahiago dugu *belarrian tantarik ez erabiltzea* arrazoi hauengatik: batetik, ez dira eraginkorrak, erdiko belarrira heltzen ez direlako (tinpanoak babesten du); eta, bestetik, ezkoa biguntzen dute, eta horrela ezin dugunez tinpanoa argi ikusi, diagnostikoa zailagoa izaten da.

**ZERI JARRI BEHAR DIOT ARRETA?**

Honelakorik gertatuz gero, berriro ere pediatrarenera jo edo larrialdietako zerbitzura etorri:

- Belarri atzetik inflamazioa agertzen bada, gorritasun eta minarekin, belarria aurrerantz lekualdatuta.
- Orokorrean, umea oso goibel badago, gorakoekin, sukarrarekin, eta haserrekortasuna eta mina joaten ez bazaizkio.

Su hijo ha sido diagnosticado de **OTITIS MEDIA AGUDA**, por los síntomas y signos que ahora presenta.

**¿QUE ES?**

Se trata de una infección aguda del oído medio, siendo muy común en niños por las características anatómicas del oído en esta edad. Muy frecuentemente aparece como complicación de un catarro de vías respiratorias altas.

**¿COMO PUEDO RECONOCERLA?**

El niño lleva generalmente con catarro varios días y puede aumentar la fiebre. Los lactantes más pequeños se ponen más irritables o lloran intensamente sobre todo por la noche, rechazan la alimentación, especialmente si tienen que succionar, y a veces pueden tener vómitos y diarrea. Los niños mayores se quejan de dolor de oído y a veces de que no oyen bien. Cuando se ve secreción en el conducto auditivo quiere decir que el tímpano ha sufrido una pequeña ruptura por donde puede salir el pus: en estos casos suele calmarse el dolor.

**¿QUE PUEDO HACER SI MI HIJO TIENE UNA OTITIS?**

- La mayoría de las otitis curan sin tratamiento antibiótico en un plazo de 24 – 48 horas, pero dependiendo de cada caso, el pediatra podrá indicarle un antibiótico por vía oral, durante unos días.
- El dolor se calmará con los antitérmicos habituales como paracetamol, ibuprofeno...
- Es importante limpiar bien las fosas nasales con suero y en los más pequeños se puede utilizar un "saca mocos".
- Nosotros preferimos que *no se utilicen gotas en el oído* porque, por una parte, no son eficaces ya que no llegan al oído medio (está protegido por el tímpano), y, por otra, ablandan la cera impidiendo que podamos ver con claridad el tímpano, lo cual dificulta el diagnóstico.

**¿QUE DEBO VIGILAR ?**

Usted debe consultar de nuevo a su pediatra o nuestro servicio de urgencias sí:

- por detrás de la oreja aparece inflamación con enrojecimiento y dolor, desplazándose la oreja hacia adelante.
- en general, si el niño está muy decaído, con vómitos, fiebre, irritabilidad y dolor persistentes.